

HITZ BITAN



PAUL FAITH / AP

Gerry Kelly Sinn Feineko buruzagia Ipar Irlandako Poliziak jipoituta, aurtengo udan, martxa orangista baten aurkako protestan ari zela.

IPAR IRLANDA

Sinn Feinen arabera, «porrot» egin dute bake elkarriketek

Agentziak | BELFAST

Sinn Fein alderdi errepublikanoak atzo adierazi zuenaren arabera, «porrot» egin dute Irlandako eta Erresuma Batuko gobernuen izan dituen bake elkarriketek. Gerry Kelly legebitzarkide errepublikanoak «militaristei» egotzi zien erantzukizuna, bere ustez haiek ezartzen baitute Erresuma Batuko Gobernuaren jarrera armada erretiratzearen eta RUC Polizia aldatzearen inguruan.

Erresuma Batuk eragin zuen Ipar Irlandak duen krisia, Kellyren arabera, eta, hori gainditu ahal izateko, RUC Polizia berri eta Ipar Irlanda desmilitarizatzea onartu beharko duela esan zuen Sinn Feineko legebitzarkideak. Kellyren hitzetan, Ostiral Santuko bake hitzarme-

nean sinatutakoa bete behar du Londresek.

«Gabonek eragindako etena»

Erresuma Batuko Gobernuak Ipar Irlandarako elehun batek ukatu egin zuen porrota izan dela, eta Eguberrien ondoren berriro helduko dietela gaineratu zuen. «Ez da sekretua funtzionario askoren eta Sinn Feinen artean elkarriketak egiten ari direla», nabarmendu zuen elehunak. Gerry Kelly bera eta Martin McGuinness Hezkuntza ministroa dira harreman horietan Sinn Feineko ordezkariak.

Bake prozesua geldirik dago Ipar Irlandan. Poliziaren erreforma, Armada britainiarrak Irlandatik alde egitea eta desarmea dira prozesuan aurreratzea galarazten duten oztopo nagusiak.

TXILE

Asteazkenean egingo dio galdeketa Juan Guzman epaileak Pinochet diktadore ohiari

Datorren asteazkenean egingo dio galdeketa Augusto Pinochet Txileko diktadore ohiari Juan Guzman epaile bereziak, epaitegietako berriemaileen arabera. Galdeketa horren ondoren erabaki dezake epaileak Pinocheten kontrako auzipetze agindua berriz ematea.

Juan Guzman epaileak bizitokia non duen jakinarazteko eskatu dio Augusto Pinocheti, auzipetze agirien berri eman ahal izan diezaion.

SRI LANKA

Gerrillari tamilek hilabeteko su-etena aldarrikatu dute

Gerrillari tamilek hilabeteko su-etena egingo dutela adierazi zuten atzo, agiri baten bidez. Tamil independentisten nazioarteko bulegoak atzo Londresen jakinarazi zuenez, su-etena abenduaren 24ko gauerdian hasi eta 2001. urteko urtarrilaren 24ko gauerdian bukatuko da. Sri Lankako Gobernu eta Armadaren buruzagiek tamilen agiria «kontu handiz» aztertuko dutela adierazi dute lehen erantzun gisa.

TURKIA

21 lagun hil dira preso kontrako operazioan, Gobernuaren arabera

Turkiako Gobernuaren iturriek «ia amaitutzat» jo dute aste honetan kartzeletako preso politiko kontrako errepresio operazioa. Ankararen datuen arabera, segurtasun indarrek 21 gatibu hil zituzten, gose greban zeuden militanteen kontra eginda. Giza Eskubideen Elkartek esan duenez, berriz, 40 gatibutik gora hil dira.

VENEZUELA

Montesinosok operazioa egin du ospitale batean, itxura aldatu eta Justiziari ihes egiteko

EPA
Vladimiro Montesinos.

Peruko presidente ohiaren aholkulari Vladimiro Montesinosok operazioa egin zuen Caracasko klinika batean itxura aldatu eta nazioarteko Poliziarengandik ihes egiteko. Horixe baieztatu dute Venezuelako hiruburuko erietxe bateko iturriek. Operazioan aldaketak egin zitzaizkion aurpegian. Peruko Justiziak Fujimoriren laguntzailea izandakoaren kontrako atxilotze agindua bideratu du ustelkeria eta beste hainbat kargu egotzita.

EKIALDEKO TIMOR

2.000 lagun hil zituzten 1999ko independentzia erreferendumaren ondorioz, NBEren arabera

Ekialdeko Timorren iazko abuztuan egindako independentziarako erreferendumaren ondorioz gutxienez 2.000 lagun hil zituzten Indonesiaren aldeko miliziek. Sarraskia NBE Nazio Batuen Erakundeko batzorde batek ikertu du, eta horietatik dira haren azken datu ofizialak.

KOLONBIA

ELN gerrillari taldeak 45 soldadu eta polizia askatuko ditu «bake seinale gisa»

ELN Askapen Nazionalerako Armadak 45 soldadu eta polizia askatuko dituela iragarri zuen atzo. Askapena «bake eta elkarriketarako seinale gisa» jo behar zela adierazi zuen gerrilla taldeak Habanan (Kuba). Gerrillak eta Andres Pastrana Kolonbiako presidentearen ordezkariak elkarriketa saioa egin dute uhartean.

ESTATU BATUAK

Akusatu gehiago enbaxadetako atentatuen auzian

EEBBetako epaile batek beste bost lagun akusatu ditu 1998. urtean Kenya eta Tanzaniako EEBBen enbaxaden kontra egindako atentatuen ustezko egile gisa. Bonben ondorioz 223 lagun hil ziren. Osama bin Laden militante islamiarrarekin ustez lotuak diren lagun horietako inor ez dago oraindik atxilotua.

EKITALDI POLITIKOA

errepresioa ez da bidea
por una solución democrática

AMNISTIA

Viernes 22 de Diciembre a las 20:30 en el Labrit
Abenduaren 22an, Ostirala, 20:30etan Labriten